

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

68/2022 Mozioa, ekainaren 29koa, hiru lurralde historikoetako erabileraren araberako ordainketari lotutako gaitasun handiko bideen ohiko erabiltzaileei hobariak homogeneizatzeari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko ekainaren 29an egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

68/2022 Mozioa, ekainaren 29koa, hiru lurralde historikoetako erabileraren araberako ordainketari lotutako gaitasun handiko bideen ohiko erabiltzaileei hobariak homogeneizatzeari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Euskadiko gainerako foru-aldundiekin lankidetzan jardun dezala hiru lurralde historikoetako erabileraren araberako ordainketari lotutako gaitasun handiko bideen ohiko erabiltzaileei hobariak homogeneizatzeko politikak diseinatzean, politika horiek, ahal den neurrian, tratamendu harmonizatua eskaini diezaieten erabiltzaileei.

2. Arabako Batzar Nagusiek administrazio publikoei eta enpresei eskatzen diete Lantokietarako Mugikortasun Planak lantzen eta martxan jartzen lankidetzan jardun dezatela, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea betez.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 29a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA